

SARTRE: LEKUKO ETA GIDARIA

TXILLARDEGI

Paul Sartre hil da. Eta tristura handia senditu dugu askok. Tristura handia bereziki euskal ezker abertzalearen sorreran geure ahalegin guztiak egin ditugunok. Sartre lekuko aparta hiltzean, Sartre irakaslea eta gidaria ere galdu baitugu.

Ez dakit nik, egia esan, eta filosofia hutsari dagokionez; «L'Être et le Néant» edo «Critique de la Rasion Dialectique» liburuek zer balio duten. Agertu ziren garaian, eta beste anitz bezala, irakurtzen eta ulertzen nintzen. Filosofo ez garenontzat, ordea, eta gehien gehienontzat beraz, Sartre filosofoa izan ote da garrantzitsuena? **Ez, nik uste.**

Halere nik bi izen eman behar banitu, ene bizia markatu duten bi gidariren izenak alegia, segundu batez ere zalantzarik egin gabe hauek emango nituzke: B. Russell eta J.P. Sartre.

Zergatik bi horiek? Erantzuna erraza da: kapitalismoaren barruan justizi-biderik ez ikusita ere, stalinismoaren eta marxo-burokraziaren alderdi txarrak jadanik disimulatzeko biderik ez dagoelako. Horixe izan zen Russell eta Sartre-ren katramila eta kezkatuturri etengabea bizi guztian barrena; eta horixe izan da, etiketa errazegien gainetik, euskal ezker abertzalean mogitzen garen askoren ARAZO NAGUSIA.

Sartre-ren ikuspuntuak, horretara, ezin garrantzitsuago gertatu dira guretzat; Sartre, bere heterodoxia gainetik, errotik egon eskuarki istimatu ohi diren «ohore» en oso gainetik ere ibili baita. Sartre ez da sekula «la voz de su amo» izan. Eta inork baino hobeki dakigu abertzaleok: ETA krisi betean zegoelarik, eta Burgosko Hauzi famatua PCE-ak bere alde manipulatzeko dena prest eduki uste zuenean, Gisèle Halimi-ren liburuarentzako bere Hitzaurre bikaina idatziz, sozial-imperialismoaren jokoa agerian utzi zuen. Burgosko arazo historiko hura ezintasun ia osoan bizi izan genuen abertzaleok betirako izango gatazka Sartre-ri zordun.

Baina Sartre-ri buruz zerbait idatzi nahi izatekotan, nondik hasiko? Zinez, haren obraren GAITZA, nahiz fiolofosi, teatro eta kritika lanak aipatu ere ez arren, bildu eta laburtu ezina da.

Sartre gerra aurretik idazten hasi bazen ere (La Transcendencia de l'Ego, 1936; L'Imagination, 1936; La Nausée, 1938; eta abar), gerra ondoren iritsi zen, ia behingoa, ospe nabarmenera. Saint Germain de Présko «caveau existentialiste» delakoetan, eta Juliette Gréco kantariaren oihartzunetan, halako «kontestazio»-giroa sortu zen. Bizardunak eta ile-luzeak eta narratxak, «existentzialistak» omen ziren; eta gu, 1950 inguruko gazte haiek, frankismoaren harlosa ezin astunago haren azpitik, oso begi onez begiratzen genuen Sartre delakoaren aldera. Eta muga pasa zezaketen pribilejiatuen bitartez, liburu hau edo hura lortzen genuen.

Bilbon nengoen ni orduan (1950, 1951-az ari naiz); eta gero «Ekin» taldea sortuko genuenok, «existentzialismo» madarikatu (omen!) hura ikasteko



Simone de Beauvoir, Sartreren kidea gizalderdi baino gehiago, idazlearen hiletan, Montparnasseko kanposantuan

erabakia hartu genuen. Eta Sartre-rekin egin genuen topo horretara; eta haren «en-soi» eta «pour-soi» delakoen labirintoan barrena abiatu ginen. Horra hor haseran ezagutu genuen Sartre.

Baina Sartre teoriko eta filosofo harekin batera, berehala erreparatu genuen beste Sartre bat: «intellectuel engagé» delakoa; alegia, teoriaren mundutik praxi politik ora «jesten» zen intelektual ezkertarra. Eta hau ezagutu genuenez geroztik, ez beti nahi bezain gertutik, Sartre izan dugu 30 urtez gidari aparta. Hungria-ko arazoaren aurrean segitu dugu, ahal zen bezala bederen; eta Tito eta Castro-ren aurrean; eta Arjelia-ri buruzko arazoan ere bai, eta deskolonizazioan barrena, beti era zapalduetako herrien alde aurkituz; eta Israeldarren istilu zailean barrena ere bai, batera juduen eta palestinarren eskubide nazionalen alde; eta 1968-ko gertakarietan ere topatu dugu, ikasleen alde eta «gauchista» delakoen alde; eta eta Burgosko Hauzian ere bai, jakina, ETA-ren alde argi eta garbi; eta gero marximoari berari buruzko urruntzea segitu dugu, arretaz. Eta azkenean, eta «Nouvel Observateur» astekarian egin zituen deklarazio ezin inportanteagoak P. y HORA honetan aztertzeke asmoa nuenean, haren heriotzaren berria etorri zaigu.

«Je sais qu'il n'y a pas d'autre salut pour l'homme que la libération ouvrière», idazten zuen 1946-an. Dударik ez honi buruz Sartre-ren obran. Eta langileriak, bestalde, oker baldin badago ere, PC delakoetan jarria du esperantza. Hots, stalinismoa ez da xehetasun txiki bat estatu marxista ofizialetan. Zer egin, beraz? Korapilo hau ezin askaturik joan zaio bizia Sartre-ri,

PC-ko ez diren intelektual ezkertar guztiei bezala; «trahir le prolétariat pour servir la vérité, ou trahir la vérité au nom du prolétariat?».

Hori dela-ta, oso harreman txarrak eta istilutsuak izan ditu beti Sartre-k Fraitntzia-ko PC-arekin; eta honek behin eta berriz salatu izan du modu guztietara: «burguesa» hitzetik hasi, jakina, eta «payé par l'Ambassade américaine» idatzi arte. Denetik! Sartre, halere, ez da inoiz burgesiaren defentsara lerratu; eta Althusser-ek egun hauetan eman dituen hitzak errepikatuz, «il n'a jamais accepté LA MOINDRE COMPROMISSION avec le pouvoir établi».

Ezkertar politika-bide berri horren bila 1941-az geroztik abiaturik («Socialisme et Liberté» mogimenduaren bidez), berrito saiatu zen Sartre PC-a ez zen talde ezkertar eta erradikal bat sortzen. Eta 1948-an R.D.R. hura sortu zuenean («assemblement Démocratique Révolutionnaire»), ideia hau proposatu zuen gidari: «lier les revendications révolutionnaires à l'idée de liberté». Gauza bera 19 urte beranduago, 1968-ko gauchistekin PC-aren ezkerrean mogimendu bat sortzen saiatzean.

Komunistekin, dena dela (edo komunista «ofizialekin» hobeki) tratu-desberdintasunak izan ditu. 1952-tik 1956-ra arte, Sartre PC-tik aski hurbil ibili zen. Hungria-ko gertaeren ondorioz, ordea, PC-tik urrundu zen berriro; eta, ideien mailan, marxismo heterodoxo batetan finkatu zen 1968-ra arte.

Azkeneko urteetan, berriz, eta mila lekutan argi eta garbi esan duenez, «je ne suis plus marxiste» esan du; 1978-ko XV Filosofo-Biltzarrean (Burgos-en), gazteek «ya no se puede ser hoy marxista» esaten zuten bezala. Hona hemen joan den hilabetean honi buruz esaten zuena: «Le rapport le plus profond des hommes c'est ce qui les unit AU DELA DES RAPPORTS DE PRODUCTION... Toute la distinction des superstructures, telle que Marx l'a faite, C'EST UN BÉAU TRAVAIL, MAIS C'EST ENTIÈREMENT FAUX».

Tankera horretako esanak bilatzea guztiz erraza da; 1968-az geroztik, Europa-ko ezker berri guztia bezala, Sartre ere gero eta kritikoago agertzen baitzen marxismoari berari buruz; eta ez PC ofizialei buruz bakarrik. Honi buruz gure herrian dagoen desinormazioa benetan harrigarria da.

Jakina: PC-ari buruz Sartre-ren posizioa eta «gauchista» delakoena, oso antzekoak dira. Hona hemen joan den hilabetean esaten zuena: «D'un l'idée meme d'un changement fort et total, l'idée d'une révolution – DEPUIS LONGTEMPS JE PENSE QUE LE PARTI COMMUNISTE EST LE PIRE ADVERSAIRE DE LA REVOLUCION –; et, d'autre part, il y a l'aspect insurrectionnel du gauchisme, et celui-ci aussi a disparu».

Sartre-k, halere, laburki ikusiko dugunez, neo-anarkismoaren aldera eta asanblearismoaren aldera jotzen du; Bertrand Russell-ek bezala.

«Je vois une autre cause à cet effondrement: LA TRANSFORMATION EN PARTIS d'éléments qui étaient d'une certaine manière de gauche, avant 1914. LE PARTI EST LA MORT DE LA GAUCHE». Ezin daiteke alderdien kontra garbikiago mintza; eta erizpide hori 1980, hil baino lehentxeagokoa.

Azken esperantza, beste askotan bezala, Tito izan zen eta Yugoslabiako autogestioa.

Baina beti ere, edozein egoeratan, legetasuna ez zitzaion Sartre-ri bortxaketa baten legeztapena baizik: "Je ne vois pas d'autre solution que la violence pour sortir de la situation présente. Et je ne parle pas seulement de la violence communiste traditionnelle, vis-à-vis de la société capitaliste; je parle aussi de la violence des vrais révolutionnaires d'aujourd'hui contre les faux révolutionnaires que sont devenus les communistes». Eta gero pentsakera sakon hau: «Au fond ce qu'on assume c'est toujours une contre-violence, qui n'est appelée violence que par ceux qui en sont les victimes». Alegia, onartu egiten dena, azken funtsean, beti da bortxakeriaren aurkako zerbait; eta hau nork deitzen du bortxakeria edo biolentzia? Jasaten dutenek eta ez beste inork.

Baina Sartre, denaiz gain, eta Joxe Azurmendik ongi seinatu izan duenez, nitasunaren aztertzailea izan da, subjektuaren filosofoa; eta honetan Marx-engandik urrun egon da beti. Ez da kasualitatea, horretara, nazio-arazoaz, multzo-«ego» baten azterketa den aldetik, Sartre askoz ere zorrotzago agertzea Marx baino. Eta honetan ez da dudarik: Sartre izan da deskolonizazioaren apostolu nagusia. Burgos-ko Hauziaz egin zuen lana dugu frogarri bat.

Totalitarismo mota guztien salatzaile, nazio zapaldu guztien defendatzaile gartsu eta etengabea, zordun zaizkio Sartre-ri zapalduak guztiak: bai klaseak, bai herriak. Eta ez da harrizkeoa, horretara, Memmi-k eta Sartreok, azkeneko asteetan egin dituzten deklarazioetan, ia-ia hitz berberez mintzatzea zapalduak eta baztertutako giza-taldeei buruz. Klase-anaitasunaren gainetik, Sartre-ren ustez, herrikidetasunak ematen duen anaitasuna dago («fraternité» dio Sartre). Hona zer zion hitzez hitz: «Le rapport le plus profond des hommes n'est pas le rapport de production... le premier rapport est le rapport de fraternité. Il ne s'agit pas d'un mythe: la fraternité c'est le rapport de l'espèce entre ses membres. Il y a des milliers d'années, la première division sociale c'était le clan, caractérisé par son totem. C'était quelque chose QUI ENVELOPPAIT TOUT LE CLAN, et qui donnait A TOUS LES MEMBRES DU CLAN une réalité profonde... et ce rapport là c'était un rapport de fraternité. Je veux dire que la grande conception du clan, son unité matricielle, à partir d'une bête par exemple, qui les aurait tous engendrés, c'est cela qu'il faut retrouver aujourd'hui, parce que c'était une fraternité vraie; c'était un mythe sans doute, en un sens, mais c'était aussi une vérité». Horra hor «clan» eta oinarrizko anaitasun horren aldeko hitzak hil baino lehenago. Berriak al dira, egia esan, Sartre-rengan? Ez, nik uste: «Il y a un peuple basque et un peuple breton, mais le jacobinisme et l'industrialisation ont liquidé notre peuple: il n'y a plus, aujourd'hui, que des masses françaises» (Le Procès de Burgos, Sartre, 1971).

Galtzaira handia, beraz, Sartre-rena. Denontzat hori. Baina galtzaira handia batez ere euskal ezkertar aberzaleatasunaren ereintzan eta moldakuntzan ari garenontzat.

Baldinba ugalduko dira Sartre-ren euskal irakurleak! Agian bai, mila aldiz!■